

LIBURUTEKIA: literatura eta teknologia berriak izeneko jardunaldiak, Foru Liburutegian

2012ko azaroaren 13 eta 14an, LiburuTEKia Literatura eta Teknologia Berriak izeneko lehen jardunaldiak egingo dira, Bizkaiko Foru Liburutegian. Argitaletxe eta liburutegietako ordezkariak, idazleak eta blogariak formatu berriez eta irakurtzeko sistemez jardungo dute. Liburutekiaren helburua da literatur arloko teknologia berriak erabiltzeko gakoak ezagutaraztea.

Azaroaren 13an, eguerdian, sare sozialetan aditua eta idazlea den Juan Gómez Juradok hasiera emango die jardunaldiei, hitzaldi baten bidez. Egun horretako arratsaldeko lauretarako, berriz, "Teknologia berriak eremu publikotik" hitzaldia programatu da, zeinean Leioako Liburutegiko Ibon Idoiagak eta Muskizko Liburutegiko arduradun Fernando Juárezek parte hartuko baitute.

Ondoren, Alberdaniako editore Jorge Gimenezek, Galaxiako idazle eta editore Francisco Castrok eta idazle eta Alakanteko Unibertsitateko irakasle Carles Cortésekin Hizkuntza gutxiak sarean: erronka/aukera mahai-inguruan parte hartuko dute.

Azaroaren 13ko jardunaldia amaitzeko, idazle eta blogariak diren Kepa Murua, Alex Oviedo eta Alberto Santamaría eta Argentinako idazle eta blogari Flavia Companyk berba egingo dute.

Azaroaren 14an, goizeko 10:30ean, Literatura nola kontsumitzen den eta nola kontsumituko den mahai-inguruan parte hartuko dute idazlea eta Casa Américako zuzendari ohia den Imma Turbauk eta idazle eta blogariak diren Javier de Ríos eta Gonzalo Garridok. Goizean, beste mahai-inguru bat egongo da; parte-hartzaileak hauek izango dira: Gonzalo Garrido idazle eta blogaria, Eduardo Laporte idazle eta kazetaria, Carles Cortés idazle eta Alakanteko Unibertsitateko irakaslea eta Flavia Company idazle eta blogaria.

Arratsaldean, Jesús Esnaola idazle eta blogariak, Pedro Ugartek eta Rocío Romero idazle eta blogariak Mikrokontakizuna teknologia berrietan: irakurle-harrapaketan mahai-inguruan parte hartuko dute.

Ondoren, Sinerratako editore Amalia Lópezek, Camara liburutegiko arduradun Javier Cámarak eta Tintas liburutegiko arduradun Fernando Gonzálezek eztabaidagai izango dute Argitaratzaileak eta liburu-saltzaileak: formatu digitaleko argitalpen esperientziak.

2012ko Liburutekia jardunaldiak amaitzeko, Papera ala ebooka? Autore liburua. Liburua etorkizunari begira izenburupean jardungo dute Amalia López, Juan Gómez Jurado eta Kepa Muruak, Alex Oviedo moderatzaile ari dela.

LIBURUTEKIA: Jornadas sobre literatura y nuevas tecnologías en la Biblioteca Foral

Los días 13 y 14 de noviembre de 2012 la Biblioteca Foral de Bizkaia acogerá bajo el nombre de LiburuTEKia las primeras Jornadas sobre Literatura y Nuevas Tecnologías. Representantes del mundo editorial y librerías, escritores y escritoras y bloggers departirán sobre los nuevos formatos y sistemas de lectura. Liburutekia se celebra con el objetivo de dar a conocer las claves del uso de las nuevas tecnologías en el mundo de la literatura.

El día 13 al mediodía tendrá lugar la charla inaugural a cargo del escritor y experto en redes sociales Juan Gómez Jurado. Ese mismo día a partir de las cuatro de la tarde se ha programado la conferencia "Las nuevas tecnologías desde el espacio público" con la participación de Ibon Idoiaga de la Biblioteca de Leioa y Fernando Juárez, responsable de la Biblioteca de Muskiz.

A continuación, Jorge Gimenez, editor de Alberdania, Francisco Castro, escritor y editor de Galaxia y Carles Cortés, escritor y profesor de la universidad de Alicante participarán en la mesa redonda "Lenguas minoritarias en la red. Reto / oportunidad".

La jornada del 13 de noviembre concluirá con la intervención de los escritores y blogueros Kepa Murua, Alex Oviedo y Alberto Santamaría y la escritora argentina y bloguera Flavia Company.

El 14 de noviembre a las 10:30 de la mañana, la escritora y exdirectora de Casa América, Imma Turbau y los escritores y blogueros Javier de Ríos y Gonzalo Garrido debatirán sobre "Cómo se consume y se consumirá la literatura". El programa de la mañana continuará con la mesa redonda en la que participarán Gonzalo Garrido, escritor y bloguero, Eduardo Laporte, escritor y periodista, Carles Cortés, escritor y profesor de la Universidad de Alicante y Flavia Company, escritora y bloguera.

En la sesión de tarde, el escritor y bloguero Jesús Esnaola, Pedro Ugarte y la escritora y bloguera, Rocío Romero intervendrán en la mesa redonda "El microrrelato en las nuevas tecnologías: pescando lectores".

Seguidamente, un nuevo debate se centrará sobre el tema "Editores y libreros: Experiencias de edición en formato digital" con la participación de la editoria de Sinerrata Amalia López, el responsable de la librería Cámara, Javier Cámara y el responsable de la Librería Tintas, Fernando González.

Las jornadas Liburutekia 2012 finalizarán con el debate "¿papel o e-book? Libro de autor. El libro de cara al futuro" y la participación de Amalia López, Juan Gómez Jurado y Kepa Murua, moderado por Alex Oviedo.